

Euskal Kostaldeko padura-ekosistemen behin-behineko dinamika eta funtzionamendua / Dinámica y funcionamiento provisional de las marismas de la Costa Vasca

(Dynamics and provisional operation of marshy ecosystems)

Mendarte, Sorkunde

Euskal Herriko Unib. Zientzi Fak. Landare, Biologia eta Ekologia
Saila. 644 PK. 48080 Bilbo

BIBLID [1137-8603 (2002), 17; 203-233]

Jaso: 99.09.07
Onartu: 00.04.10

Plentziako itsasadarrean kokatzen diren Txipio eta Isuskiza itsas-paduretan landare halofiloen heina ekologikoa ikasi zen, parametro edafiko esanguratsuenak kontuan izanik. Halaber, hazi-bankuen eta hazi-ekoizpenen ikasketak burutu ziren.

Giltza-Hitzak: Paduretako landaredia. Landare-banaketa. Parametro edafikoak. Hazi-bankua. Hazi-ekoizpena.

En las marismas marinas de Txipio e Isuskiza que se encuentran en la ría de Plentzia se estudia la ecología de las plantas halófilas, tomando en cuenta los parámetros edáficos más significativos. También se realizaron estudios de los bancos y producción de semillas.

Palabras Clave: Vegetación de la marisma. Distribución de las plantas. Parámetro edáficos. Banco de semillas. Producción de semillas.

Dans les marais marins de Txipio et Isuskiza qui se trouvent dans la ria de Plentzia, on étudie l'écologie des plantes halophiles, en tenant compte des paramètres édaphiques les plus importants. Des études ont également été faites sur les banques et la production de graines.

Mots Clés: Végétation des marais. Distribution des plantes. Paramètre édaphiques. Banques de graines. Production de graines.

SARRERA

Padurak landaredi fanerogamaz estaliriko lur eremuak dira eta itsas uraren aldean-aldiko urgaineztatzea jasaten dute (Chapman, 1974). Eremu hauetako marea hiletan sedimentuak marea goreneko maila heltzen duenean sortzen dira. Ibaiek materialak aportatzen dituzte eta hauetako pilatuz doazen moduan lur eremu horiek kolonizatuak izan daitezke. Sedimentazioarekin batera espezie baskular batzuk finkatzen doaz. Finkaturiko landaredi honek era berean, sedimentazioa errazten du eta sustrai eta parte aereoaren bidez partikulak harrapatzen ditu. Deposizioak jarraitzen duen bitartean, beste landare batzuk zonaldea inbaditzen dute eta honela dibertsitateak gora egiten du (Figueroa et al. 1985). Hala ere, padurak orokorrean dibertsitate baxuko baina ekoizpen primario altuko eremuak direla esan daiteke, eta bertako ekoizpen horri ekarri altuena landare baskularrek egiten diente (Hemminga et al. 1996).

Padurak inguru akuatikoa eta itsasadarren arteko trantsizio eremuak dira, eta itsaspadura hauetako ekosistema lehortarreko minoritarioak dira. Eremu hauetako betetzen dituzten espezieen ezaugarri taxonomiko, genetiko, ekologiko eta fisiologikoak eta baita prozesu ekologikoaren konplexutasuna errepikatzen eznak eta esklusiboak dira.

Ekosistema hauetako paper oso garrantzitsua dute flora eta faunaren kontserbazioan, eta gainera paraje hauetako garrantzi ekonomiko, kultural, zientifiko eta errekreatibo handikoak dira eta, jasan izan duten presioa kontuan hartutako babes, kontserbazio eta birsotze estrategiak behar dituzte. Uraren ziklo orokorrean betetzen duten papera, sare trofikoan, materia organikoaren ekoizpenean, eta elikagai berziklapenean duten papera aipatu behar da. Esan daiteke hezeguneak bertako baldintza bereziez probetxua ateratzentzen duten landare-komunitateetaz osatuta daudela, honela, ekoizpena oso altua lortuz, horien artean landare halofiloak direlarik azpimarragarri.

Nahiz eta eremu horiek airearekiko duten esposizioa luzea izan, mareen eragina jasan eta noizean behinka urgaineztatu egiten dira. Mareen gora eta beheneko modu ezberdinean eragiten dute, eta marea gorako kasuetan padurak urgaineztatuak geratzen dira. Ingurune gazietan finkatzen diren paduren lurzorruak elikagaietan txiroak izaten dira, eta gazitasun altua eta ureztapena jasaten dute, espezie askoren garapena mugatzen delarik. Baldintza salinoak, itsas bazterreko baldintza gogorrak, haize gogorrak ez dira baldintza egokienak landare-diaren hazkuntzarako, eta uretatik lehorrerantz dibertsitate gradiente bat ematen dela esan daiteke, dibertsitate altuagoa egonik lehorrerantz. Itsas uraren eragina, lurreko oxigeno falta, materia organikoaren akumulazioa eskasa, dira besteak beste, eremu hauen ezaugarri orokorrak. Kapa freatikoaren sakonera marea eta urtaroen arabera aldakorra da eta bere presentzia erabakiorra da paduretako tipikoa den medio abiotikoaren ezaugarrien determinatziale gisa.

Parametro hauetako guztiak landare gehienentzat bizi-baldintza gogorrekotako ingurunea erakusten digute. Hau dela eta, paduratan finkatzen diren espezieak mekanismo fisiologiko eta estrategia ekologiko berezi eta konkretuak garatzen dituzte ingurune hauetan bizi ahal izateko eta estrategia hauetako

ezberdinak dira paduran zehar duten kokapena kontuan izanik. Honela defini daitezke alde batetik, padurako behe eta erdi aldea. Alde bi hauek egunean bitan urazpian gelditzen dira marearen eraginez. Bestalde, paduraren goi aldea bereiz daiteke, normalean urazpian gelditzen ez dena, baina, marea bizien kasuan urazpian gelditu ohi dena. Hala ere, gradiente hau ez da nabaria eskala baxu batean; paduratan, egiazki, espezie-mosaikoak finkatzen dira ingurune baldintza konkretuen isla.

Padurak kostaldeko eremuak izanik gizakiaren eragin handia jasan izan dute eta jasaten dute eta honekin transformazio eta atzerakada handia. Paduraren erdi-goi aldean eman izan da nekazal onurarako erabilitako eremuen okupazioa. Larreen finkatzea, baratzeen finkatzea gertatu da eta zenbait hamarkadatan zehar mantendu izan da. Gaur egun, eta gizakiaren eragina gutxitzearekin batera ingurune berezi hauetara adaptaturiko espezien birsortzea probokatu da, baina hauek baldintza artifizialetara ohiturik. Hau da, alde batetik marearen eta gazitasunaren eragina, baina, bestalde, materia organiko ugaria giza eraginaren ondorioz.

Gaur egun esfortsu geroz eta nabariagoa zuzentzen da padura hauen kontserbazio eta berrezartzerako; hau guztiz loturik dago padurekiko interesaren hazkuntzarekin (Brix 1994, Scatolini & Zedler 1996, Callaway et al. 1997, Kwak & Zedler 1997). Ekologoak zientzia kudeaketa ekintzetan aplikatzeko saiatuak egiten ari dira (Zedler et al. 1998), baina, probatu gabeko zenbait suposaketa egiten ari dira berrezartze ekologian.

Era berean, paduren egoera Euskal kostaldean nahiko larria da, estuario batzuetatik guztiz desagertu dira eta beste batzuetan azaleraren ehuneko txiki bat baino ez dute suposatzen. Industrialde, nekazaritza eta hirigintzaren presioak dira estuarioak neurri batean zein bestean itxuraldatzen dituztenak. Tradizioz, Euskal Herrian 17 itsasadar deskribatu izan dira (9 Bizkaian, 8 Gipuzkoan), eta horietako batzuk desagertutzat jotzen dira arrazoi antropologikotik, nahiz gainerakoek ere eraldaketa maila desberdinak erakusten dituzten. Honekin loturik, padura horiek berreskuraren potentzial ezberdinak dituzte. Barbadun, Butroe, Urdaibia, Lea, Artibai, Deba, Urola, Inurritza, Oria eta Txingudiko itsasadarrak aipa daitezke oraindik, hauek padurako landaredi naturaleko guneak dituzte geruzatan banatuak.

Paduren garrantzia eta kontserbaziorako zergatiak

Mareen dinamikan elementu erregulatzairen izateaz gain, elementu kutsakor ezberdinien erretentzioan garrantzia dute, honek paper garrantzitsua jokatuz uren depurazioan, baita hegazi migratzaleen pasaleku bezala duten garrantziagatik ere. Itsaspaduren kontserbazioak zeharkako garrantzi handia du komertzio eta elikagai industriarako ere. Horrezaz gain, gainerako lurraldetek baino emankortasun handiagoa erakusten dute, udaldietan aktibo dirautelako inguruko lursailak lehortu egiten diren bitartean. Guzti honegatik esaten da bertan ematen diren erlazio ekologiko, aberastasun floristiko eta faunistikoa errepika ezinak direla.

Guztia laburbilduz esan daiteke, guztiz beharrezkoa dela egoera onean aurkitzen diren paduren mantenua ziurtatzea, baita euskal kostaldean zehar dauden hainbat padura degradatuaren errekuperazioa ziurtatzea ere.

Helburu orokorrak

Aurretiko ikasketen emaitzen arabera, konduktibilitatea, pH eta materia organikoa bezalako faktore edafikoen balioen heina aldakorra da padura ezberdinako landareen artean (Valiela & Teal 1974, Chapman 1976, Othman 1980, Long & Mason 1983, Adam 1993, Van den Brink et al. 1995). Era berean, jakina da paduretako landare espezieak inguruneko faktore eta faktore biotikoen hautespenaren isla direla. Honek, eta landare halofiloen banaketaren ezagutzak area ezberdinetan, informazioa gehitzen dute espezie hauen nitxo ekologiko ulertzeko. Kantaurialdeko padura naturaletan, marea mailetako altitude gradienteen araberako landare banaketa eredutu izan da, sustratuengandik uholde mailaren gradienteari deskribatzeko (Onaindia & Navarro 1987). Hala ere, eredu hauek ez dira betetzen zonapen hau adierazteko hain garrantzitsuak diren faktore edafikoek aldaketak jasaten dituztenean, hauen artean, gizaki aktibitateaz eragina sifritzen duten areak aipa daitezke. Landare halofiloen banaketarako edozein ikasketak kontuan hartu behar ditu hurbilketa orokor batez detektatzen ez diren hainbat aspektu, eta kontuan hartu ere espezie batzuen agerpena aldagai abiotiko batenpean dagoela (Piggot 1969, Long & Mason 1983, Rozenma et al. 1985, Benito & Onaindia 1991, van den Brink et al. 1995).

Era berean, hazi-bankuaren konposaeraren ezagutzak posible egiten du perturbazio izaeradun egoera baten ondoren hasera batean finkatzen den landarediaren aurreikuspena egin ahal izatea. Baita ere, espezieen batezbesteko ugaritasun erlatiboa eta espezie bakoitzaren banaketa potentziala ezagutu ahal izatea ahalbidetzen du (Welling et al. 1988). Hazi-bankuaren berrikuntza hazi-banku eta landarediaren dinamikarekin erlazionatuta dago, hauek era berean, hazi-bankuaren estaldura, ugalketa, banaketa, predazioa eta biabilitatearekin zerikusi handia dute (Leck et al. 1989).

Hildo hauetatik jarraituz eta aspektu hauen guztien ezagutzak duen garrantzia kontuan izanik, ikerketa honen helburuak finkatu ziren Plentziako itsasadarrean kokatzen diren Txipio eta Isuskiza paduratan jarraitzeko. Hala ere, padura bi hauetan jarraitu diren helburuak ezberdinak dira hurrengo lerroetan azaltzen den bezala.

TXIPIO

Ikasketa honen helburuak padura honetan zenbait faktore edafiko (lurzoruhetzesasuna, konduktibilitatea, pH, materia organikoa) eta padurako landareen arteko erlazioak ebaluatzea da, kontuan harturik padurak 3 hamarkadetan zehar berrezarpen naturala jasan izan duela. Ikasketa honek paduretako espezieen lehentasunetan sakondu nahi du, eta hau era berean aplikatuko da degradaturiko paduretan mareen berresartzearen aurreikuspenean.

Lurralde konkretu bateko berrezartze-kriterioen ezagutzak, antzeko arazoak dituzten beste zenbait eremuetan lagungarri izan daitezke (Zedler, 1996).

Bestela esanda, landare komunitateen koposaketa eta banaketaren ezaguera lortu nahi da, kontuan izanik inguruko baldintza ezberdinen eragina jasaten dutela (pH, konduktibitatea, materia organikoa, konduktibitatea, erre-dox potentziala).

ISUSKIZA

Isuskizako paduran jarraitu diren helburu bezala hazi-bankua eta honek paduraren dinamikan betetzen duen funtziola ikastea izan da. Baita etorkizuneko berreraketa posibleetan hazi iturri bezala, guzti hau kontuan harturik landaredi komunitate askoren garapen, erregenerazio eta mantenuan lurreko hazi-bankuak duen garrantzia handia dela. Espezie esangarrien hazi-bilketa egitea bilatu den beste helburu bat da. Hazi ekoizpena ikusi nahi da; aleko zein pisutan ere espezie ezberdinak lortzen dituzten ekoizpenak ezagutzea bilatzen da.

Era berean, landarediaren banaketaren eta hazi-bankuaren banaketaren arteko erlazioak bilatu nahi dira, baita honek landare hazi-ekoizpenarekin duen erlazioa ere; guzti hau jakinik padura honek 20 urte inguru daramatzala berreskuratzen, eta jatorrizko egoerara jarraieran daraman garapenarekin erlazionatu nahi da.

MATERIALAK ETA METODOAK

IKASKETA-AREA

Lan honen bidez Plentziako itsasadarra ikasi nahi da. Ikasketa area Plentziako itsasadarrean kokatzen da, Bilbotik 15 kilometroetara, Bizkaiko Golkoan (Kantauriar itsasoan). Marearteko heina mesotidala da bertan (4.40 m MHWS eta MLWS artean), maiztasun semidiurnalarekin. Berezitasun meteorologiko garrantzitsuena urtean zeharreko hilabete lehorren ia guztizko ausentzia da, eurijasa garrantzitsuenak udazken-negu aldean gertatzen direlarik. Areak klima epela du eta urteko batezbesteko tenperatura 13-15°C artekoa da eta 1.000 mmtako euri jasa baino altuagoa urtean.

Plentziako itsasadarrean kokatzen diren Txipio eta Isuskiza padurak aztertu ditugu. Padura hauek biek gizakiaren eragin zuzena jasan izan dute urteetan zehar.

Txipio 60. hamarkada arte soroez beterik zegoen, hala ere baratz hauen uztarekin batera eta muroen hausketarekin batera, ur gaziaren sarrera baimendu zen eta honela espezie halofitoen kolonizazioa erraztu zen. Utzi ondoren mareetako urek lur horiek babesten zituzten pareta autsi egin zituzten eta bertako landare halofitoek eremu hauek birkolonizatzen hasi ziren. Eta

hala ere, padura honetan, bere iparraldea itxi zaion arren, ubide bati esker itsasaldien jarioa iristen da, eta padura dinamika bat garatzen da hainbat geruzatan. Padurako lurrez gain, aldakuntza maila ezberdineko gune multzo bat ere barnebiltzen du: landazabal guneak eta gune erruderatizatuak, kirol zeliaik eraikitzeko erabili diren iparrekialdeko betegunetik.

Txipio padurak erdiuneko kanale nagusi bi ditu eta alboetako kanale ugari. Ur estratuaren hurbiltasunak erdiuneko depresio salinoa sortarazi du.

Isuskiza paduran ez da sororik finkatu izan baina, eukaliptu landaketak egin izan dira eta padurako zenbait eremutan ikus daitezke oraindik zuhaitz ale batzuen enborrak. Hala ere, bertan ur gaziaren sarrera ematen da eta espezie honek ez du ur gazitasuna jasaten. Orain utzi egin badira ere eukaliptu landaketa hauek, duela hamarkada batzuk bere horretan erabiltzen ziren landaketak. Gaur egun, eta duela 20 urte inguru utzi zenez bertako eukaliptu landaketen hustirakuntza, padurak ez du egoera larria erakusten. Padura honek ere, Txipioko padurak bezala gizakiaren eragin zuzena jasan izan du eta eremu hauek beteak eta isolatuak izan ziren ur gaziak eragina izan ez zezan.

Plentziako itsasadarrean zehar kokatzen diren padura unitate hauek, Txipio eta Isuskiza padurak, badute ezberdintasunik euren artean, honela, Txipiok ur gaziaren eragin handia jasaten duen bitartean, Isuskizako padurak ur gezaren eragin handiagoa du. Ezberdintasun honek eragina sor dezake paduren egitura eta dinamikan eta ezberdintasun horiek ikasten saiatuko gara.

IKASKETA DISEINUA ETA METODOAK

Ikasketa diseinua ikasketa-area eta helburuak jarraituz lantzen da. Kontuan hartu behar da padura bietan bilatu diren helburuak ezberdinak direla eta hori dela eta laginketa diseinua ere nahiko ezberdina da Txipio eta Isuskiza artean. Jarraian azaltzen da Plentziako itsasadarrean definitutako lanaren metodologia, lehenik Txipion burututakoa azaltzen delarik eta onoren Isuskizan burututakoa.

TXIPIO

Datu biotikoen laginketa

Alde batetik Txipion marea baxuko garaian azarezko 2x2 m karratutako 27 lagin hartu ziren (Benito & Onaindia, 1991) uztailean. Laginketa uda aldean burutu zen landare halofiloen garapen begetatibo optimoarekin bat egin zezan. Karratu bakoitzean agerturiko espezieak, hauen ugaritasuna eta estaldura-portzentaiak kalkulatu ziren estimazio bisualaren arabera. Espezieak laborategian identifikatu ziren identifikazio giak erabiliz: Flora Europaea (Tutin et al. 1964-1980) eta Aseginolaza et al. 1984.



1. Argazkia. Txipioko padura. Bista orokorra.

Datu abiotikoen laginketa

Era berean, landarediaren banaketa ikasteko jarraitutako puntu berdinak erabili ziren azarezkoko lurzoru 10 lagin hartzeko (10-15 cmtako sakonera eta 7cm tako diametroarekin). Ondoren espezieen banaketa determina dezakeen ezaugarri fisikokimikoaren analisia egin zen.

Neurturiko parametro edafikoak egitura, hezetasuna, pH, konduktibilitatea, materia organikoa, nitrogeno totala eta C:N ratioa izan ziren. Analisiarako erabilitako metodoak Official Methods for Soil and Water Analysis (Izengabekoa, 1981) delakoan agertutakoak dira.

Parametro edafiko eta landare-espezie ugaritasun erlatiboen arteko erlazioa Spearman-en korrelazioa eta Osagai Garrantzitsuenen Analisia (PCA) erabiliz estimatu zen Stat View programarekin (Abacus Concepts 1986).

ISUSKIZA

Datu biotikoen laginketa

Agertzen diren landare espezieak ezagutzea komeni da ondoren hazi-bankuaren ikasketarekin lortzen diren datuekin erlaziona ahal izateko. Honetarako zenbait trantsektu egin ziren Isuskizako paduran zehar eta bertako espezieak apuntatu ziren.



2. Argazkia. Isuskizako padura. Bista orokorra.

Hazi-bankuen ikasketa

Lurreko bankuaren ikasketa egiteko lurzoruko laginak hartu ziren. Sakonean 5 cm eta diametroan 45 mmtako corea erabili genuen eta puntu bakoitzeko 10 lagin ezberdin hartu ziren. Puntu bakoitzeko lurzoru laginak nahastu, homogeneizatu eta bandejatan jarri eta negutegian sartu ziren. Bandeja hauetan hezetasuna gordetzeko aproposa den sustratua jarri zen eta honela hezetasuna hobeto mantentzitekeen eta modu jarrai batez ureztatu egin ziren izaera hidrologikoa gal ez zezaten. Aldian aldian ureztatu egiten ziren laginak eta bertan aurrera egiten zuten espezieak ikustearaz gain indibiduo kopuruak ere zenbatu egiten ziren.

Hazi-bilketa eta hazi-ekoizpenea

Espezie esanguratsuen hazi-bilketa egin zen. Horretarako eta leku zehatz batetako indibiduoen haziak soilik ez hartzearren paduran zehar azarezko ibilbideak egin eta haziak bildu ziren. Honekin batera, hazi-ekoizpenea kalkula daiteke. Bilduriko hazi guztiak negutegira eraman eta bertan lehortu eta pisatu egin ziren. Aleak eta haziak pisatu eta zenbatu egin ziren, honela, aletan (kopurutan) zein pisutan (gramotan) hazi-ekoizpenea lortu genuen.

Esan beharra dago harturiko espezie bereko ale guztiak poltsa berean sartu zirela. Ale edo indibiduo bakoitza bakanka poltsa batean sartu izan balitz ondorengoko zenbaketetan ale bakoitzari dagokion kopuru zehatzia jakin ahal izango litzateke; honela, batezbesteko egoki eta errore estandarra jakin ahal izango genuke baina azkenean ezin izan dugu informazio guzti hau lortu.

EMAITZAK

TXIPIO

Landare espezieak eta faktore edafikoak


1. taulan Txipioko paduran azalduriko 13 espezie halofitoak izendatzen dira. Era berean, espezie horiek faktore edafikoekiko erakusten dituzten balioak azaltzen dira.

1. taula. Espezie bakoitzak erakusten dituen balio maximo (max) eta minimoak (min) neurituriko parametro edafikoekiko. (*Aster tripolium*, *Spartina maritima*, *Salicornia ramosissima*, *Puccinellia maritima*, *Arthrocnemum perennis*, *A. fruticosum*, *Halimione portulacoides*, *Frankenia laevis*, *Juncus maritimus*, *Elymus pycnanthus*, *Polygonum maritimum*, *Festuca rubra* eta *Phragmites australis*)

| | | Lurzoruko hezetasuna (%) | Lurzoruko pH | Lurzoruko kondukti bitatea (mS cm) | Lurzoruko materia organikoa (%) |
|-------------------------|------------|--------------------------------|-----------------|---|--|
| <i>A. tripolium</i> | Max min | 72.46 59.44 | 7.3 6.6 | 21.41 14.66 | 11.87 8.42 |
| <i>S. maritima</i> | Max min | 71.68 61.92 | 7.1 7.0 | 19.66 14.87 | 11.87 8.48 |
| <i>S. ramosissima</i> | Max min | 72.46 61.56 | 7.3 6.6 | 21.41 15.00 | 11.87 8.48 |
| <i>P. maritima</i> | Max min | 71.75 63.45 | 7.1 6.6 | 21.41 16.83 | 11.87 9.86 |
| <i>A. perennis</i> | Max min | 67.34 59.44 | 7.3 6.7 | 21.02 14.66 | 13.04 8.42 |
| <i>A. fruticosum</i> | Max min | 71.17 59.44 | 7.3 6.7 | 21.02 14.66 | 13.04 8.42 |
| <i>H. portulacoides</i> | Max min | 72.46 57.86 | 7.3 6.6 | 21.41 14.07 | 13.04 8.42 |
| <i>F. laevis</i> | Max min | 66.38 57.86 | 7.05 6.75 | 16.97 14.07 | 9.76 8.48 |
| <i>J. maritimus</i> | Max min | 67.34 57.86 | 6.9 6.6 | 21.02 13.60 | 13.04 7.92 |
| <i>E. pycnanthus</i> | Max min | 71.68 41.89 | 7.7 6.7 | 19.66 2.85 | 11.87 7.19 |
| <i>P. maritimum</i> | Max min | 71.68 43.68 | 7.1 6.7 | 19.66 7.01 | 11.87 9.86 |
| <i>F. rubra</i> | Max min | 71.17 57.86 | 7.1 6.8 | 14.87 14.07 | 9.34 9.00 |
| <i>Ph. australis</i> | Max min | 57.05 41.89 | 7.7 7.0 | 10.78 2.85 | 10.44 7.19 |

Hezetasuna

Neurtutako hezetasun balioak 72.5% balio maximo eta 41.9% balio minimo artekoak dira. Lehena *Aster tripolium* espezierako den bitartean bigarrena *Elymus pycnanthus* eta *Phragmites australis* espezientzat da. 1. irudian ikus daitezke batezbesteko hezetasun mailak eta hauekiko espezieek era-kusten duten banaketa. Banaketa gradientea ondo definituta dago.



1.irudia Espezie-banaketa hezetasunaren (%) arabera. Batezbesteko eta errore estandarrak. Ast=*Aster tripolium*, Sal=*Salicornia ramosissima*, Pucc=*Puccinellia maritima*, Hal=*Halimione portulacoides*, Jun=*Juncus maritimus*, Ely=*Elymus pycnanthus*, eta Phr= *Phragmites australis*.

Aster tripolium, *Puccinellia maritima* eta *Salicornia ramosissima* espezieen banaketa hezetasunarekin positiboki korrelazionaturik dago ($p<0.05$) (2.taula).

Aster tripolium 72.5%-59.5% hezetasun heinean zehar aurkitzen da, *Puccinellia maritima* 71.8%-63.5% heinean eta *Salicornia ramosissima* 72.5%-61.6% hezetasun heinean (1. taula). Espezie hauek padurako hezetasun balio maximoetako zonetan agertzen dira. Eta hezetasun aldakortasun zaba-la jasanezin duten espezietzat har daitezke.

Phragmites australis espeziearen banaketa, heina zabalagoa duena (57%-41.9%), hezetasunarekin negatiboki erlazionaturik dago. Hala ere, *Elymus pycnanthus* (72.5%-57.9%), *Halimione portulacoides* (72.5%-57.6%) eta *Juncus maritimus* (67.3%-57.9%) hezetasunarekiko korrelaziorik ez duten banaketak erakutsi dituzte.


2. taula. Spearman korrelazioaren koefizienteak parametro edafikoekin korrelacionaturik dauden espezieentzat.

Esangarritasun mailak: * p < 0.05 / **p < 0.01

| Espezieak | Lurzoruko | Lurzoruko | Lurzoruko | Lurzoruko | Lurzoruko | Lurzoruko |
|--------------------------------|------------|-----------|-----------|-----------|-----------------|-------------------|
| | hezetasuna | area | sedimentu | pH | konduktibitatea | materia organikoa |
| | (%) | (%) | (%) | | (mS cm) | (%) |
| <i>Aster tripolium</i> | +0.58** | +0.10 | -0.12 | -0.70 | +0.50** | +0.29 |
| <i>Elymus pycnanthus</i> | -0.28 | -0.09 | +0.15 | +0.19 | -0.43* | -0.01 |
| <i>Halimione portulacoides</i> | +0.50* | -0.30* | +0.25 | -0.40* | +0.43* | +0.27 |
| <i>Juncus maritimus</i> | +0.12 | -0.45** | +0.35* | -0.53** | +0.25 | +0.02 |
| <i>Puccinellia maritima</i> | +0.49* | -0.14 | +0.08 | -0.30 | +0.51** | +0.41* |
| <i>Phragmites australis</i> | -0.54** | +0.13 | -0.11 | +0.26 | -0.58** | -0.01 |
| <i>Salicornia ramosissima</i> | +0.44* | +0.20 | -0.23 | -0.06 | +0.49* | +0.30 |

Konduktibitatea

Konduktibitate balioak 2.85 mScm eta 21.41 mSCm artean kokatzen dira eta espezieek konduktibitate gradienteean zeharreko banaketa argia era-kusten dute (2. irudia).



2. irudia Espezie banaketa konduktibitatearen arabera (mScm). Batezbesteko eta errore estandarrak. Ast=*Aster tripolium*, Sal=*Salicornia ramosissima*, Pucc=*Puccinellia maritima*, Hal=*Halimione portulacoides*, Jun=*Juncus maritimus*, Ely=*Elymus pycnanthus*, Phr=*Phragmites australis*.

Aster tripolium, *Puccinellia maritima* eta *Salicornia ramosissima* espezieen banaketa positiboki korrelazionaturik dago konduktibilitatearekin ($p<0.05$). Espezieen konduktibilitatearekiko banaketa heinak hurrengo hauek dira: 21.41-14.66 mScm artekoak *Aster tripolium*-en kasuan, 21.41-16.83 mScm *Puccinellia maritima*-ren kasuan eta 21.41-15 mScm *Salicornia ramosissima* espeziarentzat.


Elymus pycnanthus espeziearen banaketa (19.66-2.85 mScm) eta *Phragmites australis* espeziearen banaketa (10.78-285 mScm) negatiboki korrelazionaturik daude konduktibilitatearekin ($p<0.05$).

pH eta materia organikoa

pH balioak padurako lurzoruan 6.6 eta 7.7 artekoak izan dira. pH-aren araberako espezie-gradazioa ez da oso azpimarragarria (3.irudia).

Hala ere, *Phragmites australis* espezieak parametro honekiko tolerantzia heina zabala du (7.0-7.7 artekoak) eta era berean, batezbesteko pH balioak dituzten areatan aurkitu da; honek guztiak esan nahi du, espezie hau pH balio ezberdinetara adaptaturik dagoela.

Juncus maritimus espezieak pHarekiko negatiboki korrelazionaturiko banaketa erakusten du eta 6.6-6.9 ko heina erakusten du balio hauentzat.



3. irudia. Espezie-banaketa a) pH eta b) materia organikoaren (%) arabera. Batezbesteko eta errore estandarrak. Ast=*Aster tripolium*, Sal=*Salicornia ramosissima*, Pucc=*Puccinellia maritima*, Hal=*Halimione portulacoides*, Jun=*Juncus maritimus*, Ely=*Elymus pycnanthus*, Phr=*Phragmites australis*.

Aster tripolium, *Salicornia ramosissima*, *Puccinelia maritima*, *Halimione portulacoides* eta *Juncus maritimus* pH balio baxuko aldeetan agertzen dira eta materia organikotan eduki altuko areak okupatzen dituzte, nahiz eta alda-kortasun handia erakusten duten. Orokorrean, materia organikoko edukiak altuagoak dira Txipio padurako barnealdean.


pH eta materia organikoaren balioen alderaketak (3. irudia) erakusten du bien arteko korrespondentzia negatiboa; pH balio altuenak materia organikoko balio baxuekin elkarrekikotasuna dute eta alderantziz.

Puccinelia maritima materia organikoarekin positiboki korrelazionaturik dagoen espeziea da (2. taula) eta materia organiko balio altueneko karratu-ten topaturikoa, leku bateko materia organiko balio altuko indikatzale ona bezala kontuan har daiteke.

Osagai Garrantzitsuenen Analisia (PCA)

Espezie banaketa parametro edafiko garrantzitsuenen arabera analizatu ondoren, espezieak espazialki klasifikatzeko PCA erabili da.

Analisiak bariantzaren 51%-a almacenatzen du bere lehen ardatzean. Hurrengo ardatzak informazio gutxiago dauka, eta ez da kontuan hartu (4. irudia).



4. irudia. Osagai garrantzitsuenen analisi-en aldagaiak hurrengo faktoreekin: pH, konduktibitatea (cond), arearen % (sand), buztinaren% (clay), C:N ratioa (C/N), materia organikoa (O.M.), nitrogeno totala (N) eta hezetasuna (moist).

Lehen ardatzeko faktore garrantzitsuenak hezetasuna eta konduktibitatea dira alde positiboan; honek esan nahi du ardatz honek gradiente bat jarraitzen duela hezetasun eta konduktibitate baxuko zonatik.

Materia organikoak konduktibilitateak jarraitzen duen gradiente berdina jarraitzen du, eta hau ez da gradiente natural baten berezitasun, bai ordea, kanpoko eragin baten ondorioz sortutako egoera baten berezitasun (kasu honetan, lurzoruaren materia organiko balio altuei atxiki daitekeena, bertan egon diren baratzak direla eta).

pH-ak konduktibilitateak erakusten duen alderantzizko konportaera era-kusten du, hau ez da ohizkoa paduratan, baina, egoera hau erlazionaturik egon daiteke arearen nekazal erabilera-rekin.

Bigarren ardatzeko faktore garrantzitsuena arearen portzentaia da, egitura areatsuan islatzen dena eta marea beheran drenaia ona baimentzen duena. Egitura faktore baldintzatzalea da paduretako espezie-banaketan.


PCA-ren behe aldean (5. irudia) *Aster tripolium*, *Salicornia ramosissima*, *Puccinellia maritima*, *Spartina maritima* eta *Polygonum maritimum* espezieak daude, are ale erratio altuko paduraren behe aldeetan bereizgarriak diren espezieak.



4. Argazkia. *Halimone portulacoides* Txipoko paduran.

Hauen behe aldean (5. irudiaren goi aldean) *Phragmites australis* eta *Elymus pycnanthus* daude, hezetasun baxuko eta konduktibitate eta are ale erratio baxuko areetako kolonizatzaleak.

Halimione portulacoides, *Arthrocnemum perennis* eta *A. fruticosum* lurzoru egitura ezberdineko aldeetan agertzen dira (are-portzenaia maila ertainarekin). *Festuca rubra*, *Juncus maritimus* eta *Frankenia laevis* (5. irudiaren erdialdean) baldintza ertaineko balioetan kokatzen dira eta ez dute erlazio handirik neurituriko faktoreekiko.



5. irudia Espezie-proiekzioa osagai garrantzitsuenen analisiaren ardatzean. Ast=Aster tripolium, Spar= Spartina maritima, Sal=Salicornia ramosissima, Pucc=Puccinellia maritima, Art.p.=Arthrocnemum perenne, Art.f.=A. fruticosum, Hal=Halimione portulacoides, Frank=Frankenia laevis, Jun=Juncus maritimus, Ely=Elymus pycnanthus, Poly= Polygonum maritimum, Fest= Festuca rubra eta Phr= Phragmites australis.

ISUSKIZA

Landare espezieak

Isuskizako paduran zehar eginiko trantsektuen arabera hurrengo hauek dira bertan aurkitutako espezie guztiak.

- *Arthrocnemun fruticosum*
- *Arthrocnemun perenne*
- *Aster tripolium*
- *Elymus farctus*

- *Frankenia laevis*
- *Halimione portulacoides*
- *Inula crithmoides*
- *Juncus maritimus*
- *Limonium binervosum*
- *Polygonum marinum*
- *Puccinelia maritima*
- *Salicornia ramosissima*
- *Spartina maritima*
- *Spergularia marina*
- *Suaeda maritima*
- *Triglochin maritima*

Hazi-bankua

Hazi-bankuaren azterketa egitea da gure ikerlanak jarraitzen duen helburuetako bat. Ondoren, hazi-bankuaren eta landarediaren arteko erlazioak topatu nahi dira.

Lehenik eta behin esan behar daurreko hazi-bankuan ikusi zen espezie ugari eta garrantzitsuena *Salicornia ramosissima* zela, honek aurrera egin baitzuen hartutako lagin guztietan. Espezie hau, espezie mamitsu da, gorputz mamitsuarekin eta piramide forman adarkatzen da eta behe aldeko adarrak oso zabalduak ditu. Espezie anuala da eta kolore berdekoa bada ere, uda bukaeran gorritzen da.



5. Argazkia. *Salicornia ramosissima* Txipioko paduran.

Espezie honek oso indibiduo kopuru altua garatu zuen bandejatan jarritako lagin bakoitzean, bere maximoa 95 indibiduoak izan zelarik. Honekin batera *Suaeda maritima* espeziea hazi-bankuan nahiko garrantzitsua dela esan daiteke, nahiz eta ez den *Salicornia ramosissima* bezain ugaria, espezie hau ez da bandeja guztietan behatu baina bai bandejen 67%an. Hala ere, bandejatan ikusi den indibiduo kopurua askoz ere baxuagoa izan da, bandejako 3 indibiduo izan delarik maximoa.

Era berean, beste espezie batzuk ikusi dira *Puccinellia maritima* kasu, espezie gramineo batekin batera. Hauen bandejen agertze portzentzia eta indibiduo kopurua oso baxua izan da.

Hazi-bilketa eta hazi-ekoizpena

Bestalde, espezie esanguratsuen hazi-bilketa egin dugu. Jarraian aipatzen dira haziak hartzeko erabili diren espezieak:

- ⇒ *Suaeda maritima*
- ⇒ *Halimione portulacoides*
- ⇒ *Spergularia maritima*
- ⇒ *Limonium vulgare*
- ⇒ *Inula chrysanthemoides*

Jarraian azaltzen den 3. taulan beha daitezke hazi ekoizpeneko datuak. Datu hauek aleko hazi kopurutan ematen dira ondoren azalduko den bezala.

Taula honetan ikusten dena beti ere hazi kopurutan ekoizten dena azaltzen dute. Honela, esan daiteke aleko hazi ekoizpenik baxuena *Spergularia maritima* espezieak erakusten duela. Honi kontrajarriz, *Limonium vulgare* espezieak dauka indibiduoko batezbesteko hazi ekoizpen altuena. Tarteko egoerak erakusten dituzte behatutako beste espezie guztiek. *Suaeda maritima* espezierako lortu dugu hazi kopururik handiena, hauek 30 landare aleko

| Espeziea | Ale kopurua | Hazi ekoizpena Guztira | Aleko hazi ekoizpena |
|----------------------------|-------------|---------------------------|-------------------------|
| <i>S. maritima</i> | 30 | 13.737 | 458 |
| <i>H. portulacoides</i> | 15 | 3.511 | 234 |
| <i>S. maritima</i> | 62 | 7.053 | 114 |
| <i>L. vulgare</i> | 4 | 2.370 | 592 |
| <i>I. chrysanthemoides</i> | 21 | 9.796 | 466.5 |

3. taula. *Suaeda maritima*, *Halimione portulacoides*, *Spergularia maritima*, *Limonium vulgare* eta *Inula chrysanthemoides* espeziatarako hartutako ale kopurua eta hauen hazi ekoizpen totala eta indibiduoen batezbestekoa.

izan direlarik. *Limonium vulgare* espezierako lortu dugu hazi kopuru baxuena, baina kontuan harturik lortutako ale kopurua baxuagoa dela, aleko hazi ekoizpen altuena erakusten du espezie honek.

INULA CRITHMOIDES

Espezie konposatu honen azarezko 21 ale hartu ziren. Hogeita bat ale ezberdin hauetarako 9.796 hazi kopuru zenbatu ziren 6,8572 gramo hazitan, beraz, batezbesteko 466,5 hazi ekoizten du ale bakoitzak, eta hazi bakoitzaren batezbesteko pisua 0,0007 gramotakoa da. Bestalde, esan daiteke espezie honek bere baliabideen 0.2555%-a haziaren ekoizpenareko erabilten duela, ale guztien pisu orokorra 19,98 gramotako da eta.

SUAEDA MARITIMA

Espezie honetarako azarezko 30 ale hartu ziren, ale hauek tamaina ezberdinekoak zirela kontuan hartu zelarik. 30 ale hauetarako 14,01 gramo hazi lortu ziren, aleen pisu orokorra 37,39 gramotako izan zelarik. 30 ale horiek ekoizturiko hazi kopuru totala 13.737 koa da, eta ale bakoitzak ekoizturiko batezbesteko 458 hazietakoa. Era berean, hazi bakoitzaren batezbesteko pisua 0,001 gramotakoa dela esan daiteke. Landare espezie honek bere errekursoen 0.273% erabiltzen du hazi-ekoizpenerako.

HALIMIONE PORTULACOIDES

Espezie honetarako ere tamaina ezberdineko aleak ikusi ziren, guztira zorizko 15 ale hartu zirelarik paduratan zehar. 32.14 gramotako pisua zuten ale guzti horietarako 13,63 gramotako haziak ekoitzi zituztela esan daiteke. 13.63 gramotan hazi kopurua 3.511koa izan zen, beraz, ale bakoitzak ekoizten ditu batezbesteko 234 hazi. Espezie honek errekurso totalaren 0.298% erabiltzen du hazi-ekoizpenerako.

SPERGULARIA MARINA

Bestalde, espezie honetarako ere tamaina ezberdineko 62 ale hartu ziren. *Spergularia marina* espezierako harturiko ale guztien pisua 8.99 gramotako izan zen bitartean, aleen ekoizpena pisutan 0.6067 gramotakoa izan zen. Era berean, 7.053 hazi hartu dira ale kopuru osorako, beraz, batezbesteko ale ekoizpena kopurutan 114koa dela esan dezakegu. Bestalde, hazi bakoitzaren batezbesteko pisua 0,000086 gramotakoa da. Espezie honek bere baliabide guztien 0.0632% erabiltzen du hazi-ekoizpenerako.

LIMONIUM VULGARE

Espezie honen, paduran ere zabalduegia ez dagoelako, ale kopuru baxuagoa hartzan zen. 4.60 gramotako zen harturiko ale totalaren pisua, hemendik

2.40 gramo haziei dagokielarik. Harturiko 4 aleetarako 2.370 hazi zenbatu ziren, batezbesteko ekoizpena 592 hazikoa zelarik ale bakoitzeko, eta hazi bakoitzaren batezbesteko pisua 0,0019 gramotakoa da. Espezie honek berak dituen baliabide guztietatik 0.343% erabiltzen du hazi-ekoizpenerako.

Guzti hau aztertzearekin batera, espezie ezberdinen hazien batezbestekoak (pisutan) azter daitezke. 4. taulan agertzen dira espezie ezberdinen haziale bakoitzaren batezbesteko pisuak. *Halimione portulacoides* espezieak erakusten du hazi ale bakar batentzat batezbesteko pisu handiena eta honi kontrajarriz, *Suaeda maritima* eta *Limonium vulgare* espezieak dute hazi ale bakarrantzat batezbesteko pisu arinena.

| Espeziea | Hazi baten batezbesteko pisua (gramotan) |
|--------------------------------|---|
| <i>Inula chritmoides</i> | 0.0007 |
| <i>Suaeda maritima</i> | 0.0010 |
| <i>Halimione portulacoides</i> | 0.0039 |
| <i>Spergularia maritima</i> | 0.0013 |
| <i>Limonium vulgare</i> | 0.0010 |

4. taula. *Inula chritmoides*, *Suaeda maritima*, *Halimione portulacoides*, *Spergularia maritima* eta *Limonium vulgare* espezieek ekoiztutako hazi ale bakoitzeko batezbesteko pisua (gramotan).

EZTABAINA

TXIPIO

